

PRENTSA-OHARRA

Teknikerrek I+Gko erreferente dela berretsi du, sektore estrategikoetan hitzarmen berriak eginda

- *AVS, BIOLAN, Giroa, NBI taldea eta erakunde laguntzaile gisa berritu duen MAIER dira Teknikerrekin hitzarmen berriak sinatu dituzten konpainiak.*
- *Hala, zentro teknologikoak sendotu egin du euskal industria-sareko enprekin duen harremana, eta hainbat sektoretarako transferentzia bultzatzen du teknologia aurreratuenarekin.*

[Eibar, 2021eko azaroak 5] - **Tekniker** zentro teknologikoak kolaborazio berriak egiten jarraitzen du euskal industria-sareko enprekin. BRTAko (Basque Research and Technology Alliance) kide da eta erakunde laguntzaile ugari ditu. Modu horretan, I+G eta teknologiarik aurreratuena merkatura transferitzeko erreferentziatzko laguntzaile gisa duen garrantzia berresten du.

Teknikerrek hitzarmen berriak sinatu ditu **AVS**, **BIOLAN**, **Giroa** eta **NBI Taldearekin** eta **MAIER** konpainiak lehendik zuen lotura berritu du zentroarekin, zentroaren jakintza eta soluzioak erakunde horiek lan egiten duten sektore estrategikoetan aplikatzeko.

“Gure filosofiaren ezaugarri nagusia gure lurraldea osatzen duten enprekin etengabeko harreman zuzena izatea da. Luis Uriarte Teknikerreko zuzendari nagusiak azaldu duenez, “erakunde laguntzaileak” sendotu egiten du jarrera hori, apustu horri bultzada handiagoa ematen dioten epe luzeko konpromiso eta harremanekin”.

Osasunaren sektoretik espaziora

Zentroaren erakunde laguntzaile berrietako bat **BIOLAN** da. Teknikerrekin elkarlanean, gailu sensore integratuak diseinatzen ditu, hainbat neurri-printzipio eta elektronika txertatua konbinatuz eta, aldi berean, produktuaren garapen-prozesu osoari laguntzen dio.

Lankidetzeta horren proiektu aipagarriena OSASUNBERRI izango da, Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari Euskadi Next 2021 funtsetarako proposatutako lehentasunezko ekimenetako bat.

“Lankidetzeta-proiektuak beste 25 erakunde ditu, eta diagnostiko-soluzioak eta terapiak bilatzen ditu Covid-19 eta etorkizuneko pandemiak kudeatzeko. Bere lau lan-ildoen artean, D bitaminaren defizitaren aurkako terapiak, terapia immunomodulatzailea eta Covid-19ren pazienteentzako terapia zelularra garatzen ditu”, gehitu du Luis Uriartek.

Teknikerrekin lankidetzeta-hitzarmena sinatu duen beste erakunde bat **Giroa** da. Enpresa horrekin azpiegitura bereziak eraginkortasunez kudeatzeko sistema aurreratuen garapenean lan egiten du, ponpaketa-sistemen energia-kontsumoa minimizatuz eta energia berriztagarriak konbinatuta sorkuntza eta biltegiatzea optimizatuz.

Zentro teknologikoak bat egin du **Grupo NBI**rekin ere, gainazalen ingeniartzan dituen gaitasunak eskaintzeko hainbat arlotan, hala nola tribologian, estaldura funtzional fisiko eta kimikoetan edo azaleko testurizazioan; baita ekoizpen-prozesuen ingeniartzan, metrologian eta automatizazioan ere, doitasunezko errodamenduen eta beste industria-produktu batzuen diseinu-, fabrikazio- eta merkaturatze-prozesuak optimizatze eta sustatzeko.

Halaber, aplikazio espazialean, partikulen fisikan edo astronomian erreferente den **AVS** enpresarekin batera, Teknikerrekin instalazio zientifikoetarako azken belaunaldiko ekipamendua garatzen laguntzen du, kontrol aurreratuan, gainazalen ingeniartzan, metrologia dimentsionalean eta mekatronikan dituen gaitasunak eskainiz.

Azkenik, **MAIER**ek, automobilgintzarako osagai estetiko eta funtzionalen fabrikatzaileak, Teknikerren erakunde laguntzaile izateko hitzarmena berritu du, produktu elektronikoaren ingeniartzan, gainazaletan eta automatizazio industrialean azken urteotan egindako lanarekin jarraitzeko.

Lankidetzeta-hitzarmen horiek guztiak I+G jarduerak hobeto koordinatzeko estrategia baten barruan sartzen dira, bi aldeetako lantaldeak finkatzeko eta emaitzak optimizatze aukera emango duen harreman egonkorra sendotuz. Modelo horrek, gainera, komunikazioari eta markari lotutako onurak, azpiegiturak lehentasunezko baldintzetan erabiltzea eta hirugarrenetikiko laguntza estrategikoa ere baditu.

Teknikeri buruz

Tekniker fabrikazio aurreratuan, gainazalen ingeniartzan, produktu-ingeniartzan eta fabrikaziorako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b-aren bidez gizarte osoari hazkundera eta ongizatea eransteko xedea dauka, eta enpresa-ehunduraren lehiakortasunari modu jasangarrian laguntzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

Informazio gehiago:

GUK ► Eider Lazkano

eider@guk.es | Tel. 620 807 344